# ZERBITZUAK ESKAINI EDO UDAL JARDUERAK BURUTZEAGATIK EZARRITAKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

**1. Artikulua**

Eranskineko tarifetan zehazten diren jarduerak burutu edo zerbitzuak eskaintzeagatik prezio publikoak ezarri eta ordainaraziko dira, Ordenantza honetako arauei jarraituz, haiek hauen barne direlarik.

**2. Artikulua**

Ordenantza udalerri guztian ezarriko da.

**3. Artikulua**

Ordenantza honetan araututako prezio publikoak, zerbitzu edo jardueren onuradunek ordainduko dituzte.

**4. Artikulua**

Ordenantza honetan arauturiko prezio publikoengatiko tarifak, Eranskinean datozenak dira.

**5. Artikulua**

Ordainerazi daitezkeen diru-kopuruak, eskatu edota bururuturiko zerbitzu edo jarduera bakoitzeko ordainduko dira eta dagokien epigrafeetan bakoitzarentzat adierazitako kopuruak ezingo dira murriztu.

**6. Artikulua**

Ordenantza honetan adierazten diren zerbitzuak eskaintzeko edo udal jarduerak burutzeko, aldez aurretik eskatu beharko zaio Udal Administrazioari horiek eskaini edo burutzeko baimena. Zerbitzu edo jarduera horiek, nolanahi ere, Ordenantza honetan arauturiko prezio publikoak ordaintzen badira hartuko dira emandakotzat, eta hauen epea luzatu ondoren prezio publikoa ordaintzen ez bada, zerbitzua eskaintzeko edo jarduera burutzeko aukera, besterik gabe, galarazi egingo da.

**7. Artikulua**

Ordenantza honetan arauturiko prezio publikoak ordaindu beharra, zerbitzua eskaintzen edo jarduera burutzen hasten denean sortzen da.
Hala ere, zerbitzuen eskaintzea edo jardueren burutzea dagoeneko onetsi eta luzatu bada, zerga ordaindu beharra, dagokien tarifetan adierazitako denboraldi natural bakoitzaren aurreneko egunean sortzen da.

**8. Artikulua**

Prezio publikoa honela ordainduko da:

a) Zerbitzu eskaintza edo jarduera-burutzapenen kasuan, udal kutxetan zuzenean gordailu bat sartuz, zerbitzua eskaini edo jarduera burutu aurretik, adierazitako gutxieneko kopurukoa.

# ORDENANZA REGULADORA DE LOS PRECIOS PUBLICOS POR LA PRESTACION DE SERVICIOS O LA REALIZACION DE ACTIVIDADES MUNICIPALES.

**Artículo 1.**

Se establecen y exigen precios públicos por la prestación de servicios o la realización de actividades especificados en las tarifas del Anexo, y según las normas contenidas en esta Ordenanza, de las que aquéllas son parte integrante.

**Artículo 2.**

La Ordenanza se aplica en todo el término municipal.

**Artículo 3.**

Los precios públicos regulados en esta Ordenanza se satisfarán por quienes se beneficien de los servicios o actividades.

**Artículo 4.**

Las tarifas por precios públicos regulados en esta Ordenanza, son las que se contienen en el Anexo.

**Artículo 5.**

Las cantidades exigibles se satisfarán por cada servicio o actividad solicitados o realizados y serán irreducibles en las cuantías señaladas en los respectivos epígrafes.

**Artículo 6.**

Para la prestación de los servicios o realización de actividades municipales a que se refiere esta Ordenanza, se deberá solicitar previamente a la Administración Municipal la prestación o realización de los mismos. Dichos servicios o actividades se entenderán otorgados, en todo caso, condicionados al pago de los precios públicos regulados en esta Ordenanza y una vez prorrogados, la falta de pago del precio público determinará de forma automática la no prestación del servicio o realización de la actividad.

**Artículo 7.**

La obligación de pagar los precios públicos regulados en esta Ordenanza nace con la prestación del servicio o la realización de la actividad.
No obstante, tratándose de prestación de servicios o realización de actividades ya concedidas y prorrogadas, la obligación de pago nace el día primero de cada uno de los períodos naturales de tiempo señalados en las tarifas respectivas.

**Artículo 8.**

El pago del precio público se realizará:

a) Tratándose de prestación de servicios o de realización de actividades, mediante un depósito por ingreso directo en las arcas municipales, con carácter previo a la prestación del servicio o a la realización de la actividad y por la cuantía mínima

señalada.

b) Beren izaeragatik aldez aurreko gordailua jartzeko aukera ematen ez duten zerbitzu-eskaintza edo jarduera-burutzapenen kasuan, Administratzioak dagokion faktura aurkezten duenean.

b) Tratándose de prestación de servicios o de realización de actividades en que por su naturaleza, no sea posible el depósito previo, en el momento en que la Administración presente la correspondiente factura.

c) Urtez urteko zerbitzu-eskaintze edo jarduera-burutzapenen kasuan, horiek prezio publikoen matrikuletan sartu ondoren, urte naturalen arabera.

c) Tratándose de prestación de servicios o de realización de actividades de carácter anual, una vez incluidos en las matrículas de precios públicos, por años naturales.

**9. Artikulua**

Prezio publikoa ordaindu beharrerekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik jarduera burutzen ez denean, dagokion zenbatekoa itzuliko da.

**Artículo 9.**

Cuando por causas no imputables al obligado al pago del precio público no se realice la actividad, procederá la devolución del importe correspondiente.

**10. Artikulua**

Prezio publiko hauengatiko zorrak premiamenduzko prozedura administratiboa erabiliz ordainarazi ahal izango dira.

**Artículo 10.**

Las deudas por estos precios públicos podrán exigirse por el procedimiento administrativo de apremio.

**11. Artikulua**

Ordenantza honetan arautzen den Prezio Publikoarean kitapen, bilketa eta ikuskatzeari dagokion guztian, Zergeekiko Foru Arau Orokorrean aurrikusitakoa erabiliko da.

**Artículo 11.**

En todo lo relativo a la liquidación, recaudación e inspección de estos Precios Públicos regulados en esta Ordenanza, será la aplicación lo previsto en la Norma Foral General Tributaria.

## Azken Xedapena

Udalbatzak 2023ko urriaren 6an egindako bilkuran onartu zuen Ordenantza hau aldatzeko erabakia eta 2024ko urtarrilaren lehenetik aurrera sartuko da indarran eta hala jarraituko du harik eta Ordenantza altadu edo indargabetu arte

## Disposición Final

El acuerdo de modificación de ésta Ordenanza fue tomado por la Corporación en Pleno, el día 6 de octubre de 2023 y comenzará a regir a partir del 1 de enero de 2024 y seguirá en vigor hasta que se acuerde su derogación o modificación

## PORTALEKO ARETOAK ETA GELAK

1. Areto Nagusia.

BEZ salbu

1.1. Eraikina zabalik dagoenean:

| | |
|---|---|
| a) Orduko alokairua: | 76 € |
| b) Egun erdikoa (4 ordu): | 267 € |
| c) Egun osokoa (8 ordu): | 474 € |

1.2. Larunbat arratsaldez, jaiegun eta igandeetan:

| | |
|---|---|
| a) Orduko alokairua: | 142 € |
| b) Egun erdikoa (4 ordu): | 474 € |
| c) Egun osokoa (8 ordu): | 854 € |

1.3. Oharrak:
- Gauzak jartzen ematen diren orduak ere barruan sartuko dira.
- Alokairua ordaintzeak ikusentzunezkoak erabiltzeko beta ematen du. Ekitaldia grabatu nahiez gero, zintak norberak eraman behar ditu.

2. Ikastaro gela

2.1. Eraikina zabalik dagoenean.

| | |
|---|---|
| a) Orduko aloikairua: | 29 € |
| b) Egun erdikoa (4 ordu): | 76 € |
| c) Egun osokoa (8 ordu): | 142 € |

2.2. Oharrak
- Gauzak jartzen ematen diren orduak ere barruan sartzen dira.
- Alokatzeak, gelako telebista, bideoa eta diapositiben proiektorea erabiltzeko beta ematen du.
- Gela hori ez da alokatuko larunbat arratsaldeetan, igande eta jaiegunetan

3 Museoa

3.1. Eraikina zabalik dagoenean:

| | |
|---|---|
| a) Ordu bakoitzeko alokairua: | 100 € |
| b) Egun erdikoa (4 ordu): | 350 € |
| c) Egun osokoa (8 ordu): | 700 € |

3..2. Oharrak
-Gauzak jartzen ematen diren orduak ere barruan sartuko dira.
- Alokatzeak, museoko areto guztiak erabiltzeko aukera ematen du.

4. Ondokoak dira tasarik ordaindu behar ez dutenak:

* Gipuzkoako Foru Aldundia, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoa, Estatua, Eibarko udala eta horien menpe dauden erakundeak

* Diru irabazi asmorik ez duten elkarteak eta erakundeak, udal intereseko Elkarteen Erregistroan inskribatutakoak

* Diru irabazi asmorik ez duten elkarteak eta erakundeak, udal intereseko Elkarteen Erregistroan inskribatutakoak

## UTILIZACION DE ESPACIOS EN PORTALEA

1. Salón de actos

IVA excluido

1.1 En horario de apertura normal del edificio:

| | |
|---|---|
| a) Hora de alquiler: | 76 € |
| b) Media jornada (comprende 4 horas): | 267 € |
| c) Jornada entera (comprende 8 horas): | 474 € |

1.2 Sábados por la tarde, domingos y festivos:

| | |
|---|---|
| a) Hora de alquiler: | 142 € |
| b) Media jornada (comprende 4 horas): | 474 € |
| c) Jornada entera (comprende 8 horas): | 854 € |

1.3 Notas:
- Las horas necesarias para el montaje también se computarán.
- El alquiler da derecho a la utilización del sistema audiovisual. Caso de que se quisiera grabar el acto, deberán aportar las cintas.

2. Sala de cursos.

2.1 En horario de apertura normal del edificio:

| | |
|---|---|
| a) Hora de alquiler: | 29 € |
| b) Media jornada (comprende 4 horas): | 76 € |
| c) Jornada entera (comprende 8 horas): | 142 € |

2.2 Notas
- Las horas necesarias para el montaje también se computarán.
- El alquiler da derecho a la utilización del video, TV y proyector de diapositivas de la sala.
- Esta sala no se alquilará durante los sábados a la tarde, domingos y festivos

3. Museo

3.1 En horario de apertura normal del edificio:

| | |
|---|---|
| a) Hora de alquiler: | 100 € |
| b) Media jornada (comprende 4 horas): | 350 € |
| c) Jornada entera (comprende 8 horas): | 700 € |

- Las horas necesarias para el montaje también se computarán..
- El alquiler da derecho a la utilización de todos los espacios del museo

4. Están exentos del pago de la tasa:

- La Diputación Foral de Gipuzkoa, la Comunidad Autónoma del País Vasco, el Estado, el Ayuntamiento de Eibar y las entidades de ellos dependientes
- Las Asociaciones y entidades sin ánimo de lucro inscritas en el Registro de Asociaciones de Interés Municipal
- Las Asociaciones y entidades sin ánimo de lucro declaradas de utilidad pública

## ARMAGINTZAREN MUSEOKO DENDAREN SALGAIAK

| | |
|---|---|
| "Museoa pausoz pauso" gida didaktikoa | 1€ |
| "Eibarko berripapera" gida didaktikoa | 1€ |
| *Euskal Festak 1908* CDa | 2€ |

## PRODUCTOS DE LA TIENDA DEL MUSEO DE LA INDUSTRIA ARMERA

(IVA incluido / BEZa barne)

| | |
|---|---|
| Guía didáctica "Museo paso a paso" | 1€ |
| Guía didáctica "La gaceta de Eibar" | 1€ |
| CD *Euskal Festak 1908* | 2€ |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Giltzatakoak | 5 € | | Llaveros | 5 € |
| *Eibar tailer hiria* | 40€ | | *Eibar ciudad taller* | 40€ |
| *500 años de armería vasca* | 3€ | | *500 años de armería vasca* | 3€ |
| *Armeros vascos. Repaso histórico: raíces y desarrollo* | 12€ | | *Armeros vascos. Repaso histórico: raíces y desarrollo* | 12€ |
| *Alfa S.A. Motor social y económico de la vida eibarresa* | 30€ | | *Alfa S.A. Motor social y económico de la vida eibarresa* | 30€ |
| *Viaje por el País de los recuerdos* | 10€ | | *Viaje por el País de los recuerdos* | 10€ |
| *Debarroko oasi liberala* | 28,60€ | | *Debarroko oasi liberala* | 28,60€ |
| *Catálogo de la exposición de Armas Museo de la Industria Armera de Eibar* (2017) | 80€ | | *Catálogo de la exposición de Armas Museo de la Industria Armera de Eibar* (2017 | 80€ |
| *Lamoten Grabatua* liburua | 10€ | | Libro *Grabado de Lamot* | 10€ |
| *Catálogo de museo de Armas* (1984) | 9€ | | *Catálogo de museo de Armas* (1984) | 9€ |
| Oihalezko poltsa 100% kotoia | 7€ | | Tote bag 100% algodón | 7€ |
| Museoko banderolekin egindako poltsa | 51€ | | Bolsa reciclaje banderola museo | 51€ |

## PREZIOAK, COLISEO ANTZOKIARENAK ETA IPURUA KIROLDEGIAN, ASTELENA FRONTOIAN ETA ERREBAL PLAZIAN UDALAK ANTOLATZEN DITUEN IKUSKIZUNENAK

## PRECIOS EN EL TEATRO COLISEO Y POR ESPECTACULOS ORGANIZADOS POR EL AYUNTAMIENTO EN EL POLIDEPORTIVO DE IPURUA, EN EL FRONTON ASTELENA Y ERREBAL PLAZIA

**IKUSKIZUNAK COLISEO ANTZOKIAN**

UMEENTZAKO IKUSKIZUNAK
Ordainduko den sarreraren kalkulua egingo da ikuskizuna eskainiko duen taldearen ordainsariaren eta gastu orokorren arabera (gastu orokorrak dira ordainsariaren % 25)

| ORDAINSARIA ETA KUDEAKETA-GASTUAK | SARREREN PREZIOA |
|---|---|
| 1.500 euroraino | 3,00 € |
| 1.5001etik 3.000 euroraino | 4,00 € |
| 3.001etik 4.000 euroraino | 5,00 € |
| 4.001etik 5000 euroraino | 6,00 € |
| 5.001etik 6000 euroraino | 8,00 € |
| 6.001etik 7000 euroraino | 9,00 € |
| 7.001etik 8000 euroraino | 10,00 € |

8.001 eurotik gora ondoko formula hau erabiliko da, baina, hala ere, sarreraren gehieneko kostua 15 euroan finkatuko da.

SARRERA =[(ordainsaria + gastu orokorrak, % 25)*0,75]
500

Aurreko formula hori erabiltzetik aterako den prezioa biribildu egingo da, 50 zentimoko zatikietan.

NAGUSIENTZAKO IKUSKIZUNAK.
Ordainduko den sarreraren kalkulua egingo da ikuskizuna eskainiko duen taldearen ordainsariren eta gastu orokorren arabera (gastu orokorrak, ordainsariaren % 25)

| ORDAINSARIA ETA KUDEAKETA-GASTUAK | SARREREN PREZIOA |
|---|---|
| 1.000 euroraino | 2,00 € |
| 1.001etik 1.500 euroraino | 3,00 € |
| 1.501etik 2.000 euroraino | 4,00 € |
| 2.001etik 3.000 euroraino | 5,00 € |
| 3.001etik 4.000 euroraino | 7,00 € |
| 4.001etik 5.000 euroraino | 8,00 € |
| 5.001etik 6.000 euroraino | 10,00 € |
| 6.001etik 7.000 euroraino | 12,00 € |
| 7.001etik 8.000 euroraino | 14,00 € |
| 8.001etik 9.000 euroraino | 15,00 € |
| 9.001etik 10.000 euroraino. | 16,00 € |
| 1.0001etik 11.000 euroraino | 18,00 € |

**ESPECTACULOS EN EL CINE COLISEO**

ESPECTÁCULOS INFANTILES
El cálculo del importe a abonar se realiza según el caché del grupo o compañías más los gastos generales, que se calculan en 25 % del importe del caché.

| CACHÉ Y GASTOS DE GESTION | PRECIO DE LAS ENTRADAS |
|---|---|
| Hasta 1.500 € | 3,00 € |
| De 1.501 a 3.000 € | 4,00 € |
| De 3.001 a 4.000 € | 5,00 € |
| de 4.001 a 5.000 € | 6,00 € |
| de 5.001 a 6.000 € | 8,00 € |
| de 6.001 a 7.000 € | 9,00 € |
| de 7.001 a 8.000 € | 10,00 € |

De 8.001 € en adelante, aplicación de la siguiente fórmula, con un límite de coste máximo de la entrada de 15 €

ENTRADA =[(caché +25 % de gastos generales)*0,75]
500

El precio resultante de la aplicación de la anterior fórmula se redondeará en fracciones de 50 céntimos

ESPECTÁCULOS PARA ADULTOS
El cálculo del importe a abonar se realiza según el caché del grupo o compañías más los gastos generales, que se calculan en 25 % del importe del caché.

| CACHÉ Y GASTOS DE GESTION | PRECIO DE LAS ENTRADAS |
|---|---|
| hasta 1.000 € | 2,00 € |
| de 1.001 a 1.500 € | 3,00 € |
| de 1.501 a 2.000 € | 4.00 € |
| de 2.001 a 3.000 € | 5,00 € |
| de 3.001 a 4.000 € | 7,00 € |
| de 4.001 a 5.000 € | 8,00 € |
| de 5.001 a 6.000 € | 10,00 € |
| de 6.001 a 7.000 € | 12,00 € |
| de 7.001 a 8.000 € | 14,00 € |
| de 8.001 a 9.000 € | 15,00 € |
| de 9.001 a 10.000 € | 16,00 € |
| de 10.001 a 11.000 € | 18,00 € |

1.1001etik 12.000 euroraino. 20,00 €
12.000 eurotik gora ondoko formula hau erabiliko da, baina hala ere, sarreraren gehieneko kostua 30 euroan finkatuko da.

SARRERA =[(ordainsaria + gastu orokorrak, % 25)*0,75]
500

Aurreko formula hori erabiltzetik aterako den prezioa biribildu egingo da, 50 zentimoko zatikietan.

de 11.001 a 12.000 € 20,00 €
De 12.001 € en adelante, aplicación de la siguiente fórmula, con un límite de coste máximo de la entrada de 30 €

ENTRADA =[(caché +25 % de gastos generales)*0,75]
500

El precio resultante de la aplicación de la anterior fórmula se redondeará en fracciones de 50 céntimos

SARREREN PREZIOAK, "LEHIATILAN BILDUTAKO DIRUA"REN ARABERAKO KONTRATUETAN.

Kontratu bidez finkatzen bada artisten ordainsari osoa edo ordainsariaren zati bat leihatilan saldutako sarreretatik biltzen den diruaren arabera izango dela, kontzertu eta ikuskizun horietan izango den sarreren prezioa taldearekin edo artistarekin egindako kontratuan ezarritakoa izango da, baina inoiz ez 30 eurotik gorakoa.

ENTRADAS EN LOS CONTRATOS "A TAQUILLA"

En los conciertos y representaciones en los que, mediante contrato, se fije una retribución a los artistas que consista, en todo o en parte, en un porcentaje de la recaudación obtenida en la taquilla, el precio de las entradas será el que se establezca en el contrato con la Compañía o artista, sin que, en ningún caso, pueda superar los 30 €

UDALAK EDUKIERA HANDIKO EKIPAMENDUETAN ANTOLATZEN DITUEN IKUSKIZUNAK (KIROLDEGIA, ASTELENA FRONTOIA ETA ERREBAL PLAZIA).

Ordaindu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, taldearen edo konpainiaren katxeta gehi gastu orokorrak hartuko dira kontuan (gastu orokorrak, katxetaren % 50).

| KATXETA ETA KUDEAKETA-GASTUAK | SARREREN PREZIOA |
|---|---|
| 5.000 euroraino | 5,00 € |
| 5.001etik 6.000 euroraino | 6,00 € |
| 6.001etik 7.000 euroraino | 7,00 € |
| 7.001etik 9.000 euroraino | 8,00 € |
| 9.001etik 12.000 euroraino | 9,00 € |
| 12.001etik 15.000 euroraino | 12,00 € |
| 15.001etik 18.000 euroraino | 15,00 € |
| 18.001etik 21.000 euroraino | 18,00 € |

21.001 eurotik gora ondoko formula hau erabiliko da, baina, hala ere, sarreraren gehieneko kostua 30 eurotan finkatuko da.

SARRERA = katxeta + gastu orokorrak, % 50
(2160, Kiroldegiaren edukiera) edo (1150, Frontoiaren edukiera), edo (1000, Errebalen edukiera)

ESPECTÁCULOS ORGANIZADOS POR EL AYUNTAMIENTO EN EQUIPAMIENTOS DE GRAN AFORO (POLIDEPORTIVO, FRONTÓN ASTELENA Y ERREBAL PLAZIA).

El cálculo del importe a abonar se realiza según el caché del grupo o compañías más los gastos generales, que se calculan en 50% del importe del caché.

| CACHÉ Y GASTOS DE GESTION | PRECIO DE LAS ENTRADAS |
|---|---|
| hasta 5.000 € | 5,00 € |
| de 5.001 a 6.000 € | 6,00 € |
| de 6.001 a 7.000 € | 7,00 € |
| de 7.001 a 9.000 € | 8,00 € |
| de 9.001 a 12.000 € | 9,00 € |
| de 12.001 a 15.000 € | 12,00 € |
| de 15.001 a 18.000 € | 15,00 € |
| de 18.001 a 21.000 € | 18,00 € |

De 21.001 € en adelante, aplicación de la siguiente fórmula, con un coste máximo por entrada de 30 €:

ENTRADA = caché + 50 % de gastos generales
(2160-aforo Polideportivo) ó (1150-aforo Frontón), ó ( 1000 – aforo Errebal)

**EIBARKO ANTZERKI JARDUNALDIAK**

Antzerki Jardunaldietarako sarreren kalkulua egiteko, kontuan hartuko dira ordainsariak eta/edo ikuskizuna zein sailetakoa den.

| ANTZEZLANAREN MODALITATEA ETA ORDAINSARIA | SARREREN PREZIOA |
|---|---|
| 7.999 eurorainokoak | 12,00 € |
| 8.000 eta 12.000 euro bitartekoak | 15,00 € |
| 12.000 k eurotik gorakoak | 20,00 € |
| Profesionalak ez diren konpainien antzezlanak | 5,00 € |
| Umeentzako ikuskizunak, ohiko programazioan izaten direnak. | |

**JORNADAS DE TEATRO DE EIBAR**

El cálculo de las entradas para las Jornadas de Teatro se realizará, teniendo en cuenta el caché y/o la sección en la que participe el espectáculo.

| MODALIDAD DE OBRA Y CACHÉ | PRECIO DE LAS ENTRADAS |
|---|---|
| Cachés hasta 7.999 € | 12,00 € |
| Cachés entre 8.000 € y 12.000€ | 15,00 € |
| Cachés superiores a 12.000€ | 20,00 € |
| Obras de compañías no profesionales | 5,00 € |
| Espectáculos infantiles los mismos de programación ordinaria | |

**“COLISEOAREN LAGUNA” TXARTELA**

Tarifa arrunta: 20,00 €.

Tarifa bereziak:

| | |
|---|---|
| - Eibarren erroldatutakoek eta 65 urte edo gehiago dituztenek: | 15,00 € |
| - Eibarren erroldatutakoek eta 30 urtetik beherakoek: | 15,00 € |
| - Eibarren erroldatutakoek, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren edo Diru-sarrerak Bermatzeko Laguntzaren titular direnek eta haien elkarbizitza-unitateko pertsonek: | 0,00 €. |
| - Eibarren erroldatuta daudenek eta langabezian daudenek: | 0,00 € |
| - Eibarren erroldatuta dauden 30 urtetik beherakoek, gurasoak edo tutoreak langabezian badituzte (guraso bakarreko familien kasuan, nahikoa da guraso bakarra egotea langabezian). 30 urtetik beherakoa eta haren guraso edo tutoreak etxebizitza berean egon beharko dira erroldatuta: | 0,00 € |

Txartelak urtebeteko indarraldia dauka eta tasak indarraldi horri dagozkio.

DESKONTUAK IKUSKIZUNETAN

«Coliseoaren laguna» txartela dutenek deskontu hauek jasotzeko eskubidea izango dute:

- % 30eko deskontua Eibarko Udalak programatutako ikuskizunetarako eta kontzertuetarako sarreretan.

- % 40ko deskontua Coliseoan garatzen den zinema komertzialerako sarreretan.

5 € edo gutxiagoko kostua duten sarrerek ez dituzte deskontu horiek izango. Hala ere, “Coliseoaren Laguna” txartela izan eta larunbat eta igandeetako haurrentzako lehen zine-saiora umeekin joaten diren pertsonek eskubidea izango dute beren sarrera-txartelaz gain beste bi sarrera eskuratzeko, eta sarrera horiei guztiei aurreko puntuan ezarritako deskontua aplikatuko zaie. Prezioak 50 zentimora biribilduko dira, eurotik eurora.

Deskontuak ezin dira metatu.

**TARJETA “COLISEOAREN LAGUNA”**

Tarifa ordinaria: 20,00 €.

Tarifas especiales:

| | |
|---|---|
| - personas empadronadas en Eibar que tengan 65 o más años: | 15,00 € |
| - menores de 30 años empadronados/as en Eibar: | 15,00 € |
| - personas empadronadas en Eibar que sean titulares de la Renta de Garantía de Ingresos o de una Ayuda de Garantía de Ingresos y las personas que forman parte de su unidad convivencial: | 0,00 €. |
| - personas empadronadas en Eibar que estén en situación de desempleo: | 0,00 € |
| - menores de 30 años empadronados/as en Eibar cuyos padres, madres o tutores/as estén en situación de desempleo (en caso de familias monoparentales es suficiente con que uno/a esté en situación de desempleo). Será imprescindible que el/la menor de 30 años y sus padres, madres o tutores/as estén empadronados/as en la misma vivienda: | 0,00 € |

Las tarifas corresponden a la emisión de la tarjeta, cuya vigencia es anual.

DESCUENTOS EN LOS ESPECTÁCULOS

Las personas con la tarjeta “Coliseoaren laguna” tendrán derecho a los siguientes descuentos:

-Un descuento de un 30 % en las entradas de los espectáculos y conciertos programados por el Ayuntamiento de Eibar.

-Un descuento de un 40 % en las entradas de cine comerical qu ese desarrolle en el Coliseo.

Las entradas con costo igual o inferior a 5 € no están sujetas a estos descuentos. No obstante lo anterior, en el caso de las personas con la tarjeta “Coliseoaren Laguna” que acudan a la primera sesión del cine infantil de sábados y domingos con menores tendrán derecho a adquirir dos entradas adicionales a la suya a las que también se les aplicará el descuento establecido en el punto anterior. Los precios se redondearén a 50 céntimos de euro a euro.

Los descuentos no son acumulables.

**COLISEOAN TOKIA ERRENTAN HARTZEA**

| ANTZOKIA ERRENTAN HARTZEA | PREZIOA (BEZ barne) |
|---|---|
| **Lanegunak:** | |
| Egun erdi (4 ordu) | 2.084 € |
| Egun erdi (10 egun edo gehiago), eguneko. | 1.971 € |
| Egun osoa (8 ordu) | 3.344 € |
| Egun osoa (10 egun edo gehiago), eguneko. | 3.108 € |
| **Zapatu, domeka eta jaiegunetan** | |
| Egun erdi (4 ordu) | 2.912 € |
| Egun erdi (10 egun edo gehiago), eguneko. | 2.624 € |
| Egun osoa (8 ordu) | 4.543 € |
| Egun osoa (10 egun edo gehiago), eguneko. | 4.265 € |

COLISEOKO ARETO TXIKIAK ERRENTAN HARTZEA

| | |
|---|---|
| **Lanegunak:** | |
| Egun erdi (4 ordu) | 967 € |
| Egun erdi (10 egun edo gehiago), eguneko. | 859 € |
| Egun osoa (8 ordu) | 1.518 € |
| Egun osoa (10 egun edo gehiago), eguneko. | 1.369 € |
| **Zapatu, domeka eta jaiegunetan:** | 0 € |
| Egun erdi (4 ordu) | 1.163 € |
| Egun erdi (10 egun edo gehiago), eguneko. | 1.029 € |
| Egun osoa (8 ordu) | 1.821 € |
| Egun osoa (10 egun edo gehiago), eguneko. | 1.641 € |
| HELBIDE FISKALA EDO JARDUERA UDALERRIAN DUTEN IRABAZI ASMORIK GABEKO ELKARTEEI ALOKATZEA | 300 € |

**Oharrak:**

Lekuak errentan hartzeko prezioaren barruan daude sartuta ondorengo zerbitzu hauek:

a) Ekitaldia amaitu ondoren, instalazioen eguneroko garbiketa.

b) Coliseoko instalazioak eta ekipoak erabiltzeko izango den teknikariaren lana.

c) Harrera-lekuan egongo den pertsonaren lana.

Lokala darabiltenek Udalari beste zerbitzu osagarri batzuk eskatzen badizkiote, hauxe izango da zerbitzu horien prezioa:

a) Zamalanak, harrera-lekuaren zerbitzuak eta beste zerbitzu lagungarri batzuk denbora gehiagorako edukitzea, pertsonako eta orduko: 29,84 €

b) Zerbitzu tekniko osagarriak: pertsonako eta orduko. 41,16€

Irabazi asmorik gabeko elkarteen Udal Erregistroan izena eman duten elkarteek ez dute alokairurik ordianduko.

COLISEOKO TABERNA ERRENTAN HARTZEA.

**ALQUILER DE ESPACIOS EN EL COLISEO**

| ALQUILER DEL TEATRO | PRECIO (IVA incluido) |
|---|---|
| **Laborables:** | |
| Medio día (4 horas) | 2.084 € |
| Medio día (10 días o más), por día | 1.971 € |
| Jornada completa (8 horas) | 3.344 € |
| Jornada completa (10 días o más), por día | 3.108 € |
| **Sábados, domingos y festivos** | |
| Medio día (4 horas) | 2.912 € |
| Medio día (10 días o más), por día | 2.624 € |
| Jornada completa (8 horas) | 4.543 € |
| Jornada completa (10 días o más), por día | 4.265 € |

ALQUILER DE LAS SALAS PEQUEÑAS

| | |
|---|---|
| **Laborables:** | |
| Medio día (4 horas) | 967 € |
| Medio día (10 días o más), por día | 859 € |
| Jornada completa (8 horas) | 1.518 € |
| Jornada completa (10 días o más), por día | 1.369 € |
| **Sábados, domingos y festivos** | 0 € |
| Medio día (4 horas) | 1.163 € |
| Medio día (10 días o más), por día | 1.029 € |
| Jornada completa (8 horas | 1.821 € |
| Jornada completa (10 días o más), por día | 1.641 € |
| ALQUILER A ASOCIACIONES SIN ÁNIMO DE LUCRO CON DOMICILIO FISCAL EN EL MUNICIPIO O CON ACTIVIDAD EN EL MUNICIPIO | 300 € |

**Notas:**

En los precios del alquiler de espacios están incluidos los siguientes servicios.

a) La limpieza diaria de las instalaciones, finalizado el evento

b) Los servicios de un técnico en el manejo de las instalaciones y equipos del Coliseo

c) Los servicios de una persona de recepción

Si los usuarios de los locales requieren al Ayuntamiento servicios complementarios, el precio de los mismos sería el siguiente:

a) Servicios de carga y descarga, ampliación de servicios de recepción y otros servicios auxiliares, por persona y hora 29,84 €

b) Servicios técnicos complementarios, por persona y hora 41,16€

Estarán exentas al pago de la tasa de alquiler las asociaciones inscritas en el Registro Municipal de Asociaciones sin ánimo de lucro.

ALQUILER DEL BAR DEL COLISEO

| | | | |
|---|---|---|---|
| Astegunetan (eguneko) | 638 € | Laborables (por día) | 638 € |
| Zapatu, domeka eta jaiegunetan (eguneko) | 772 € | Sábados, domingos y festivos (por día) | 772 € |

## ARRATEKO JAIAK: IDI PROBEN SARRERA

## FIESTAS DE ARRATE: ENTRADA DE DE LAS PRUEBAS DE BUEYES

| | SARREREN PREZIOA (BEZ barne) | | PRECIO ENTRADAS (IVA incluido) |
|---|---|---|---|
| 3 idi proba | 15,00 € | 3 pruebas de bueyes | 15,00 € |
| 2 idi proba | 10,00 € | 2 pruebas de bueyes | 10,00 € |
| Idi proba 1 | 5,00 € | 1 prueba de bueyes | 5,00 € |
| Korredoreak | 8,00 € | Corredores | 8,00 € |

## EIBARKO UDALAK ANTOLATUTAKO IKASTAROAK/TAILERRAK EMATEA

**Matrikularen zenbatekoa**

Ikastaroaren kostuan, irakaslearena edo ikastaroa eskainiko duen enpresarena sartuko da, eta zenbateko horri % 25a gehituko zaio, gastu orokorrei dagokiena (materiala, lokalak, ikastaroa prestatzen erabili diren udal baliabideak...).

Matrikularen zenbatekoa, ikastaroak/tailerrak duen kostua, ikastaro/tailer bakoitzak gehienez har dezakeen ikasle-kopuru osoaren artean zatituta ateratzen dena izango da.

**Hobariak**

Gizartearen, kulturaren, ingurumenaren eta abarren intereseko zenbait arlo sustatzea helburu duten ikastaro eta tailerrek ikastaroaren kostuaren gaineko hobari hauek izango dituzte:

- Emakumea eta berdintasuna: % 60.
- Drogamenpekotasunaren prebentzioa: % 25.
- Familia eta gazteria: % 25.
- Euskara sustatzea eta transmititzea: % 50.
- Ingurumena: % 25.

Ikastaro eta tailer guztietan matrikularen prezioaren % 50eko hobaria ezartzen da matrikula egiteko unean Eibarren erroldatuta dauden pertsonentzat.

Hobari mota horiek bateragarriak dira.

Hobari hauek ez dira aplikatuko, baldin eta horiek aplikatuta, ikastaroko edo tailerreko matrikularen zenbatekoa 7 euro edo hortik beherakoa bada.

**Tarifa aplikatzeko arauak.**

Lehen adierazitako tarifa eta hobari horiek ez dira aplikatuko beste erakunde batzuek antolatutako ikastaroetan/tailerretan edo erakunde horiekin elkarlanean egindakoetan. Kasu horietan aplikatuko diren tarifak ikastaro edo tailer horietarako ezarritakoak izango dira.

Ikastaroa/tailerra behin hasita dagoela baja ematen duen pertsonak ez du izango matrikularen zati proportzionala jasotzeko eskubiderik.

## IMPARTICIÓN DE CURSILLOS/TALLERES ORGANIZADOS POR EL AYUNTAMIENTO DE EIBAR

**Importe de la matrícula**

El coste del cursillo incluirá el coste del profesorado o empresa que lo imparta, incrementado en un 25% en concepto de gastos generales (material, locales, recursos municipales utilizados en la preparación…).

El importe de la matrícula se calculará dividiendo el coste del cursillo/taller entre el número máximo de alumnos/as que permita cada cursillo/taller.

**Bonificaciones**

Los cursillos y talleres que tengan como objetivo promocionar ciertas áreas de interés social, cultural, ambiental, etc. tendrán las siguientes bonificaciones sobre el coste del cursillo:

- Mujer e igualdad: 60 %.
- Prevención de drogodependencia: 25 %.
- Familia y juventud: 25 %.
- Promoción y transmisión del euskera: 50 %.
- Medio ambiente: 25 %.

En todos los cursillos y talleres se establece una bonificación del 50 % sobre el precio de la matrícula para las personas empadronadas en Eibar en el momento de realizar la matrícula.

Estos tipos de bonificaciones son compatibles.

Estas bonificaciones no serán aplicables, si de su aplicación el importe de la matrícula del curso o taller es igual o inferior a 7 €.

**Normas de aplicación de la tarifa**

Las tarifas y bonificaciones antes indicadas no serán de aplicación para cursillos/talleres organizados por otras entidades o en colaboración con ellas. En estos casos las tarifas a aplicar serán las que se establezcan para la impartición de esos cursillos o talleres.

Las personas que se den de baja una vez comenzado el cursillo/taller, no tendrán derecho a la devolución de la parte proporcional.

Plaza edo leku libreak daudelako eta ikastaroa/tailerra antolatu duenak egiten uzten duelako, hasitako ikastaro/tailer batean sartzen diren pertsonek matrikularen zenbateko osoa ordainduko dute.

Tarifak aplikatzetik ateratzen den zenbatekoa zentimo gabeko eurotara biribilduko da.

**Kudeaketa arauak.**

**Ikastaroaren edo tailerraren informazioa eta publizitatea:**

Ikastaro edo tailer bakoitzak bere informazio-orria izango du. Orri horretan ikastaroaren edo tailerraren berezitasunak jasoko dira, eta, gutxienez, honako informazio hau:

- Ikastaroaren/tailerraren izena.
- Ikastaroaren/tailerraren deskribapen laburra eta helburuak.
- Organo tramitatzailea.
- Hartzaileak.
- Irakasleak.
- Hizkuntza.
- Datak eta ordutegiak.
- Non emango den.
- Gutxieneko eta gehieneko ikasle-kopurua.
- Prezioa.
- Ordaintzeko modua.
- Aurre-matrikulazioa edo/eta matrikulazioa (epeak, kanalak…).
- Kudeaketa-arauak (zozketa, zerrendak non argitaratuko diren…).
- Gainerako informazio interesgarria: ikastarora eraman beharreko materiala…

Informazio-orriak, gutxienez, Udalaren webgunean (www.eibar.eus) eta PEGORAn (Herritarren Zerbitzurako Bulegoa) egongo dira eskuragarri. Gainera, beste hedapen mota bat eman ahal izango zaie (prentsa, sare sozialak).

**Matrikulazioa edo izen-ematea:**

Pertsona orok egin dezake izen-ematea, baina ikastaroaren/tailerraren ezaugarrien arabera, ikastaro/tailerretan sartzeko baldintza espezifikoak ezarri ahal izango dira (adina, sexua, etab.).

Ikastaro/tailer orok, ikastaroa eman aurretik, matrikulazio-aldi bat izan beharko du. Ikastaro/tailer motaren arabera, aurrematrikula egiteko beharra ezarri ahal izango da.

Oro har, aurrematrikulu horiek elektronikoki eta/edo PEGORAn (Herritarren Zerbitzurako Bulegoan) egingo dira, baina, beste kanal batzuen bidez eta beste leku batzuetan ere egin ahal izango dira. Leku horiek informazio-orrietan zehaztuko dira.

Izena eman duten pertsonek ikasleen gehiengo kopurua gainditzen badu, ikasleen aukeraketa zozketa bidez egindo da. Zozketa publikoa izango da eta informazio-orrietan zehaztuta egon beharko dira data, ordua, lekua eta jarraitu beharreko prozedura.

Onartutako pertsonen zerrenda gutxienez PEGORAn (Herritarren Zerbitzurako Bulegoan) eta udal webgunean (www.eibar.eus) izango da eskura. Zerrenda hori argitara ematen denean ordainduko da matrikularen zenbatekoa.

Aquellas personas que se incorporen a un curso/taller ya comenzado, porque hay plazas libres y la organización del mismo lo permite, abonarán el importe total de la matrícula.

El importe resultante de la aplicación de las tarifas se redondeará a euros sin céntimos.

**Normas de gestión**

**Información del curso o taller y publicidad**

Cada curso o taller tendrá su propia hoja informativa. En dicha hoja se recogerán las particularidades del curso o taller y como mínimo la siguiente información:

- Nombre del curso/taller.
- Breve descripción del curso/taller y objetivos.
- Órgano tramitador.
- Destinatarios/as.
- Impartidores/as.
- Idioma.
- Fechas y horarios.
- Lugar de impartición.
- Número mínimo y máximo de alumnos/as.
- Precio.
- Forma de pago.
- Pre-matriculación y/o matriculación (plazos, canales…).
- Normas de gestión (sorteo, donde se publicarán las listas…).
- Otra información de interés: material a llevar al curso…

Las hojas informativas estarán disponibles como mínimo en la página web municipal (www.eibar.eus) y en PEGORA, Oficina de Servicio a la Ciudadanía. Además, se les podrá dar otro tipo de difusión (prensa, redes sociales).

**Matriculación o inscripción**

Si bien se permite la inscripción a toda persona, dependiendo de las características del curso/taller se podrán establecer condiciones específicas de acceso a los cursos/talleres (edad, sexo, etc.).

Todo cursillo/taller, previo a su impartición, deberá contar con un período de matriculación. En función del tipo de cursillo/taller, se podrá establecer la necesidad de realizar una pre-matrícula.

Por norma general, éstas se realizarán electrónicamente y/o en PEGORA, Oficina de Servicio a la Ciudadanía, aunque podrán realizarse a través de otros canales y en otros lugares que se especificarán en las hojas informativas.

Si el número de personas inscritas supera el número máximo de alumnos/as, la selección del alumnado se realizará por sorteo. El sorteo será público y deberá estar especificado en las hojas informativas, incluyendo fecha, hora, lugar, procedimiento a seguir…

El listado de las personas admitidas estará disponible como mínimo en PEGORA, Oficina de Servicio a la Ciudadanía y en la página web municipal (www.eibar.eus). En el momento de publicar este listado se devenga la obligación de pago de la matrícula.

Ikastaroan edo tailerrean eskuratutako plaza pertsonala eta besterenezina da.

**Gutxieneko ikasle-kopurua**

Ikastaro edo tailer bat gutxieneko izen-emate kopurura iristen ez bada, bertan behera geratuko da. Ikastaroa bertan behera geratu dela Udalaren webgunean argitaratuko da gutxienez (www.eibar.eus).

**Plaza hutsak**

Ikastaro edo tailer bat osatzen bada, erreserben zerrenda bat egin ahal izango da, egon daitezkeen plaza hutsak betetzeko, betiere ikastaroaren/tailerraren ezaugarriek horretarako aukera ematen badute.

**Bajak**

Ikastaroan edo tailerrean baja eman nahi duenak Udal Erregistroaren bidez jakinarazi beharko du. Bajak ez du matrikularen zenbatekoa itzultzeko eskubiderik ematen.

**Ordaintzeko modua:**

Orokorrean, matrikula ordainketa bakar batean kobratuko da ordainagiria helbideratuta.

Ohiz kanpo bada ere, matrikularen zenbatekoa 200 eurotik gorakoa denean, zati bitan ordaindu ahal izango da.

La plaza obtenida en el curso o taller es personal e intransferible.

**Número mínimo de alumnos/as**

Si un curso o taller no alcanza el número mínimo de inscripciones se suspenderá. La suspensión se publicará como mínimo en la página web municipal (www.eibar.eus).

**Vacantes**

Si un curso o taller se completa, se podrá elaborar una lista de reservas, a fin de cubrir posibles vacantes, siempre y cuando las características del curso/taller lo permitan.

**Bajas**

La persona que quiera darse de baja en el curso o taller deberá notificarlo a través del Registro Municipal. La baja no da derecho a la devolución del importe de la matrícula.

**Formas de pago**

Por norma general la matrícula se cobrará en un único pago mediante recibo domiciliado.

Excepcionalmente, en los casos en los que el importe de la matrícula sea superior a 400 €, la matrícula podrá fraccionarse en dos plazos.

## EIBARKO UDALAREN JABETZAKOAK DIREN FILMAK ERABILTZEKO ESKUBIDEA LAGATZEA.

| | PREZIOAK BEZ salbu |
|---|---|
| 1. IKUSENTZUNEZKOEN ETA FILMEN EKOIZPENA. | |
| 1.1 Film luzeak edo/eta serieak: | |
| • Erakusteko eskubidea (aretoetan) edo/eta herrialde bakar batean emititzea (TB), segundo bakoitza: | 13,2 € |
| • Erakusteko eskubidea (aretoetan) edo/eta EB-n emititzea (TB), segundo bakoitza: | 19,5 € |
| • Erakusteko eskubidea (aretoetan) edo/eta mundu mailan emititzea (TB), segundo bakoitza: | 25,8 € |
| 1.2 30 minutura arteko film laburrak eta dokumentalak ekoiztea: Segundo bakoitza: | 10,0 € |
| OHARRA: 1.1. eta 1.2. ataleko prezioek % 20aren igoera izango dute, erakusteko eta emititzeko eskubideez gain bideoan, CD.Rom-ean, DVDan edo beste edozein euskarritan editatzeko eskubideak eskatzen direnean. | |
| 1.3 Erabilera instituzionalerako ekoizpenak (kasu horretan, irudiek Eibarko Udalaren armarria edo logotipoa eraman behar dute). | |

## CESION DEL DERECHO DE USO DE MATERIALES FÍLMICOS DEL AYUNTAMIENTO DE EIBAR

| | PRECIOS, IVA excluido. |
|---|---|
| 1. PRODUCCIÓN DE OBRAS CINEMATOGRÁFICAS Y AUDIOVISUALES: | |
| 1.1 Largometrajes y/o series: | |
| • Derechos de exhibición (salas) y/o emisión (TV) en un solo país, por segundo o fracción | 13,2 € |
| • Derechos de exhibición (salas) y/o emisión (TV) en la UE, por segundo o fracción | 19,5 € |
| • Derechos de exhibición (salas) y/o emisión (TV) mundiales, por segundo o fracción | 25,8 € |
| 1.2 Producción de cortometrajes y documentales de duración hasta 30 minutos: • Por segundo o fracción | 10,0 € |
| NOTA: Los precios de los apartados 1.1 y 1.2 se verán incrementados en un 20% cuando además de los derechos de exhibición y/o emisión se soliciten derechos para edición en video doméstico, CD-Rom, DVD, o en cualquier otro soporte | |
| 1.3 Producciones destinadas a uso institucional (para este uso las imágenes deberan llevar el escudo o logotipo del Ayuntamiento de Eibar) | |

- 500 ale gehienez. Segundoko: 11,6 €

1.4 Bideoan, CD.Rom-ean, DVDan edo beste edozein euskarritan editatzeko ekoizpenak. Segundoko:

- EBan banatzeko, segundo bakoitza: 10,0 €
- Mundu osoan banatzeko, segundo bakoitza: 16,4 €

2. IKUS-ENTZUNEZKOAK, KULTURA EDO HEZKUNTZA IZAERAKOAK, EDO BEHAR BEZALA EGIAZTATUTAKO INTERES PUBLIKOKOAK.

Segundo bakoitza: 4,7 €
OHARRA: 500 aletik gorako edizioetan, prezioa % 20an igoko da. Horrelako erabileretan, lagatako irudiek Eibarko Udalaren armarria edo logotipoa eraman behar dute.

3. TELEBISTARAKO EKOIZPENA.

3.1 Herrialde bakar baten emititzeko eskubidea; segundoko: 13,2 €

3.2 EBan emititzeko eskubidea; segundoko: 19,5 €

3.3 Mundu mailan emititzeko eskubidea; segundoko: 25,8 €

3. atalean azaldu diren zenbateko horiek % 20aren igoera izango dute bideoan, CD.Rom-ean, DVDan edo beste edozein euskarritan editatzeko eskubideak lagatzen direnean.

4. PUBLIZITATEA.

Segundo bakoitza: 105,5 €

5. EFEKTUAK ETA SOINUA.

Segundo bakoitza: 7,6 €

6. ARGAZKIAK EDO FOTOGRAMAK.

6.1 Kultura- eta hezkuntza-erabilerak. Jatorria derrigorrez aipatu behar da. 0,00 €

6.2 Publizitatea, argazkiko: 97,8 €

KUDEAKETA-ARAUAK ETA TARIFAK APLIKATZEKOAK.

1. Eibarko Udalaren irudiak erabiltzeko eskubideen lagapena aurretik azaldutako tarifa horietan aipatzen diren prezioen arabera egingo da; segundo bakoitza eurotan dago adierazita. Lagapen horiek ez dira sekula esklusiban izango, eta ekoizpen edo produkzio edo programa bakar baten baino ez dira azalduko.
2. Prezioak, ediziorako aurreikusitako irudiek hartzen dituzten segundoei aplikatuko zaizkie. Prezio horietan ez daude sartuta kopia ateratzeak ekartzen dituen kostuak.
3. Ezingo dira bloke tematiko osoak kopiatu; ekoizpen edo

- Edición máxima de 500 ejemplares, por segundo o fracción 11,6 €

1.4 Producciones destinadas a la edición en video doméstico, video disco. CD-Rom, DVD, etc, por segundo o fracción:

- Para distribución en UE, por segundo o fracción 10,0 €
- Para distribución mundial, por segundo o fracción 16,4 €

2. PRODUCCIONES AUDIOVISUALES DE CARÁCTER CULTURAL, EDUCATIVO O DE INTERÉS PÚBLICO DEBIDAMENTE ACREDITADO:

Por segundo o fracción 4,7 €
NOTA: A partir de la edición de más de 500 ejemplares el precio se incrementará un 20% . Para estos usos las imágenes cedidas podrán llevar incorporado el escudo o logotipo del Ayuntamiento de Eibar.

3. PRODUCCIÓN PARA TELEVISIÓN:

3.1 Derechos de emisión en un solo país, por segundo o fracción 13,2 €

3.2 Derechos de emisión en la UE, por segundo o fracción 19,5 €

3.3 Derechos de emisión mundiales, por segundo o fracción 25,8 €

Las cuantías indicadas en el apartado 3, se verá incrementadas en un 20% cuando se cedan derechos para la edición en video doméstico, CD-ROM, DVD, o en cualquier otro soporte

4. PUBLICIDAD

Por segundo o fracción 105,5 €

5. EFECTOS Y SONIDO

Por segundo o fracción 7,6 €

6. FOTOGRAFÍAS O FOTOGRAMAS

6.1 Usos culturales y educativos, con mención expresa del archivo de origen 0,00 €

6.2 Publicidad, por fotografía 97,8 €

NORMAS DE GESTION Y DE APLICACIÓN DE LAS TARIFAS

1. La cesión de derechos de uso de imágenes que pertenezcan al Ayuntamiento de Eibar se efectuará de acuerdo con los precios que se relacionan en las tarifas, expresados en euros por segundo. Se entenderán siempre como cesión sin exclusividad y para una sola producción o programa
2. Los precios se aplicarán a los segundos de imágenes previstos para la edición. Los precios no incluyen los costes técnicos de copiado o duplicado que se originen.
3. No se podrán copiar o replicar bloques temáticos

produkzio komertzialetan, artxiboko materialak ezingo du hartu ekoizpenaren edo programaren iraupenaren % 25etik gorako iraupenik edo tarterik.
4. Eibarko udalak azken ekoizpenaren kopia oso bat entregatzea eskatuko du gasturik egiteke.
5. Orokorrean, eskubideak, gehienez ere 10 urterako lagatzen dira.
6. Tarifa horietan ezarritako zenbatekoei, hala balegoke, une bakoitzean dagoen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren tipoa aplikatuko zaie.
7. Tarifa horietan dauden zerbitzuen eskaera, Eibarko Udalak horretarako jarriko duen orri edo eredu batean egingo da.
8. Erabiltzen laga aurretik ordainduko da tarifetan ezarritako prezioa.
9. Erreprodukzioak, bikoiztuak edo kopiak entregatu edo eskuratzeko orduan, Jabetza Intelektualari buruzko legeriak eta indarrean dagoen gainerako legeriak dioenaren menpe egongo da.

## ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

**1.- Prezio publikoa**
Erabiltzaileei aplikatu dakiekeen gehieneko prezio publikoa honako hau da:
Igande eta jaiegunetako ordua: 18,01 € /orduko.
Lanegunetako ordua: 15 € /orduko

**2.- Aplikazio eremua**
Araudi hau Etxeko Laguntza Zerbitzuari aplikatuko zaio, bai kudeaketa zuzeneko araubidean, bai beste entitate publiko batzuekiko hitzarmenpean edo, baita erakunde pribatuekiko hitzarmen, itun edo kontratu bidezko araubidean ere.

**3.- Ordaintzera behartuta dauden pertsonak**
Prezio publikoa ordaintzera behartuta egongo dira:
a) Etxeko Laguntza Zerbitzuaren onura zuzena jasotzen duten pertsona fisikoak, baldin eta ez badaude b) eta c) ataletan.

b) Zerbitzuaren erabiltzaileak adingabeak direnean, guraso-ahala, tutoretza edo zaintza duen/duten pertsona edo pertsonak.

c) Adin nagusikoak izan eta araudian jasotako moduan lege-ordezkarien bidez edo egitezko jagole bidez jarduten badute, ordezkari horiek egongo dira behartuta ordaintzera; horrelako kasuetan, ordainketa ordezkatutako pertsonaren errenta eta ondasunaren kargu egingo da, eta konputatuko den ahalmen ekonomikoa ordezkatu den pertsonarena izango da.

**4.- Ekarpenen taula:**
Ekarpenen taula honek zehazten du zerbitzuaren kostuan erabiltzaileak egingo duen ekarpena:

| **Sarrerak** | | **Ekarpena** |
|---|---|---|
| **Zenbatetik** | **Zenbateraino** | |
| | **IPRIM-en % 10eraino** | **1,5** |

completos y en las producciones comerciales el material de archivo no podrá exceder del 25 por 100 de la duración final de la producción o programa.
4. El Ayuntamiento de Eibar exigirá, libre de gastos, la entrega de una copia completa de la producción final.
5. Con carácter general, los derechos se entenderán cedidos por un periodo máximo de 10 años.
6. Sobre los importes reseñados en las tarifas se aplicará, en su caso, el tipo del Impuesto sobre el Valor Añadido vigente en cada momento que corresponda.
7. La solicitud de los servicios comprendidos en las tarifas se cursará en el modelo que establezca el Ayuntamiento de Eibar
8. El pago de los precios establecidos en las tarifas se efectuará de forma anticipada a la cesión.
9. La entrega de reproducciones, duplicados o copias en cualquier soporte o su obtención por medios propios del solicitante, estará sujeta a la legislación sobre Propiedad Intelectual y demás normativa vigente.

## SERVICIO DE AYUDA A DOMICILIO

**1.- Precio público**
El precio público máximo aplicable a las personas usuarias es el siguiente:
Hora en domingo y festivos: 18,01 €/hora.
Hora en día laborable: 15 €/ hora

**2.- Ámbito**
La presente normativa será de aplicación al Servicio de Ayuda a Domicilio, bien en régimen de gestión directa, bien en régimen de convenio con otras entidades públicas, bien en régimen de concierto, convenio o contrato con entidades privadas.

**3.- Personas obligadas al pago**
Estarán obligadas al pago del precio público:
a) Las personas físicas que se beneficien directamente del Servicio de Ayuda a Domicilio, cuando no se encuentren en los supuestos de los apartados b) y c)
b) Cuando las personas usuarias del servicio sean personas menores de edad estará/n obligada/s al pago la persona o personas que ostente/n la patria potestad, la tutela o la custodia.
c) En el caso de las personas adultas, cuando actúen a través de representante legal o guardador/a de hecho en los términos previstos en la normativa de acceso, estarán obligadas al pago estas últimas, si bien, en tales casos el pago se hará con cargo a la renta y el patrimonio de la persona representada y la capacidad económica computada será la de la persona representada.

4.- Cuadro de aportaciones
La aportación de la persona usuaria sobre el coste del servicio vendrá determinada por el siguiente cuadro de aportaciones:

| **Ingresos** | | **Aportación** |
|---|---|---|
| **Desde** | **Hasta** | |
| | **Hasta 110% IPREM** | **1,5** |

| | | |
|---|---|---|
| **%110>** | **% 115** | **4** |
| **%115>** | **% 125** | **8** |
| **%125>** | **% 150** | **15** |
| **%150>** | **% 175** | **24** |
| **%175>** | **% 200** | **35** |
| **%200>** | **% 225** | **48** |
| **%225>** | **% 250** | **61** |
| **%250>** | **% 275** | **74** |
| **%275>** | **% 300** | **87** |
| **%300>** | | **100** |

| | | |
|---|---|---|
| **>110%** | **115%** | **4** |
| **>115%** | **125%** | **8** |
| **>125%** | **150%** | **15** |
| **>150%** | **175%** | **24** |
| **>175%** | **200%** | **35** |
| **>200%** | **225%** | **48** |
| **>225%** | **250%** | **61** |
| **>250%** | **275%** | **74** |
| **>275%** | **300%** | **87** |
| **>300%** | | **100** |

**5.- Ondasunaren kontabilizazioa**
Per capita ondarea 40.00 €-tik beherakoa edo berdina bada, erabiltzaileei aurreko ekarpen-taula aplikatuko zaie.

Per capita ondarea hortik gorakoa bada, ekarpena honako tarte edo zatien arabera kalkulatuko da:

- 40.000 €-tik-45.000 €-ra bitartean: aurreko taulan dagokionaren goitik tarte batera tokatzen zaion portzentajea ordainduko du.

- 45.000,01 €-tik 50.000 €-ra bitartean: aurreko taulan dagokionaren goitik tarte bira tokatzen zaion portzentajea ordainduko du.

- 50.000,01 € edo hortik gorakoa bada: ezarritako gehieneko prezio publikoa ordainduko du.

**5.- Contabilización del patrimonio**
A las personas beneficiarias cuyo patrimonio per cápita sea igual o inferior a 40.000.-€ se les aplicará la anterior tabla de aportaciones.

Cuando el patrimonio per cápita supere dicha cantidad, la aportación se calculará según los siguientes tramos:

- Patrimonio entre 40.000.-€ - 45.000.-€: aportará el % correspondiente a un tramo superior de la tabla de aportaciones según ingresos.

- Patrimonio entre 45.000,01.-€ - 50.000.-€: aportará el % correspondiente a dos tramos superiores de la tabla de aportaciones según ingresos.

- Patrimonio igual o superior a 50.000,01.-€: aportará el precio público máximo establecido.

**6.- Libre erabiltzeko diru kopurua**
Libre erabiltzeko diru kopurua IPREMen % 120 izango da. Familia edo bizikidetza-unitatea kide batek baino gehiagok osatzen badute, aurreko zenbatekoari IPREMen % 40 erantsiko zaio bigarren kideagatik eta IPREMen % 30 gainerako kideetako bakoitzagatik.

**6.- Cuantía de libre disposición**
Se considerará como cuantía de libre disposición el importe referenciado al 120 % del IPREM. Si el número de integrantes de la unidad familiar o de convivencia fuere superior a uno, se añadirá a dicha cuantía el 40 % del IPREM por el segundo miembro y un 30 % del IPREM por cada uno de los restantes miembros.

**7.- Ekarpen ekonomikoaren baremoa**

**A)** Onuradunen ahalmen ekonomikoaren kalkulua:

Ahalmen ekonomikoa honako balorazio-elementuen arabera kalkulatuko da: errenta, ondarea eta onuradun kopurua.

1) **Errentatzat** hartzen da onuradunaren diru-sarrera garbi guztiak. Hauek dira diru-sarrera horien iturriak:

- Lan-etekinak, baita gizarte-laguntzako pentsio eta prestazioak, edozein izanik ere haien erregimena, aldi baterako edo betiko errentak eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta.

- Kapital higigarri eta higiezinen etekinak.

**7-Baremo de aportación económica.**

**A)** Cállculo de la capacidad económica de las personas beneficiarias:

Se calculará la capacidad económica de acuerdo a los siguientes elementos de valoración: renta, patrimonio y número de personas beneficiarias.

1) Por **renta** se entiende la totalidad de los ingresos netos de la persona o personas beneficiarias derivados de:

- Rendimientos de trabajo, incluidas pensiones y prestaciones de previsión social, cualesquiera que sean su régimen, rentas temporales o vitalicias y la Renta de Garantía de Ingresos.

- Rendimientos de capital mobiliario e inmobiliario

| | |
|---|---|
| - Enpresa-jardueren edo jarduera profesionalen etekinak. | - Rendimientos de las actividades empresariales o profesionales. |
| Errentaren konputuan, ez da diru-sarreratzat hartuko: | En el cómputo de la renta, no se tendrá en cuenta como ingreso: |
| - Etxebizitza gastuetarako prestazio osagarria, pentsio ez kontributiboen titularrentzako etxebizitza-osagarria eta etxebizitza-legetik erator daitezkeen diru-laguntzak. | - Prestación complementaria de vivienda, complemento de vivienda para titulares de PNC y posibles ayudas derivadas de la ley de vivienda. |
| - Mendekotasun egoeran dauden pertsonen Autonomia Pertsonala eta Zaintza sustatzeko legetik eratorritako prestazio ekonomikoak. | - Prestaciones económicas derivadas de la ley de promoción de la Autonomía Personal y Atención a personas en situación de dependencia. |
| - Seme/alaba adingabea norbere kargura edukitzeagatiko prestazio ekonomikoa, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren konturakoa. | - Prestación económica por hijo/a menor a cargo del Instituto Nacional de la Seguridad Social. |
| - Okupazio-zentro batera joateagatiko diru-sariak. | - Gratificaciones económicas recibidas por la asistencia a centro ocupacional. |
| - Ohiko etxebizitzatik irten beharra izateagatik —oztopo arkitektonikoengatik edo inguruabar bereziengatik, esaterako, genero-indarkeriaren biktimak— etxebizitza batean sartzeko errenta edo kreditu-gastuei aurre egin behar denean, alokairua ez da diru-sarreratzat hartuko (baina, betiere kobratzen den alokairua ez bada etxebizitza berriko gastuaren zenbatekotik gorakoa). | - El alquiler que se perciba de una vivienda habitual que se haya tenido que abandonar por barreras arquitectónicas o por circunstancias excepcionales (mujeres víctimas de violencia…) cuando deba de hacer frente a gastos de alquiler o crédito para acceder a una vivienda (en la parte que no exceda del importe del gasto de la nueva vivienda). |
| Diru-sarrera guztietatik deskontatu egingo dira: | De la totalidad de ingresos se descontará: |
| - Pentsio osagarrien ordainketa, banatzeagatik eta/do guraso eta seme-alaben arteko harremanei buruzko neurriengatik, baldin baleude, sententzia judizialaren arabera. | - El pago de pensiones compensatorias por separación y/o medidas paterno filiales si las hubiera, según la sentencia judicial |
| - Zerbitzu bat baino gehiago aldi berean erabiltzeagatik: erabiltzailea gizarte-izaerako beste zerbitzu sozial baten onuradun bada, diru-sarreretatik deskontatuko zaio dagokion zerbitzuagatik ordaindu beharko lukeen diru kopuru osoa. | - Las aportaciones por uso simultaneo de servicios: cuando la persona usuaria sea simultáneamente beneficiaria de otro servicio social de carácter asistencial u ocupacional, se deducirá de los ingresos la totalidad de la aportación que corresponda abonar por el servicio correspondiente. |
| 2) **Ondaretzat** hartzen da pertsona onuradunen kapital higigarri eta higiezin osoa, eskaera egin aurreko lau urteetatik baloratua; salbu eta kapital higiezina saldu bada eta etekin ekonomikoa jada kapital higigarriaren barruan balego. | 2) **Por patrimonio** se entiende la totalidad del capital mobiliario e inmobiliario de las personas beneficiarias valorado desde los 4 años anteriores a la solicitud, excepto el capital inmobiliario que se hubiera vendido y el rendimiento económico estuviera ya incluido en el capital mobiliario. |
| - Kapital higigarritzat hartzen dira kontu korronteetan eta epeka dauden gordailuak, inbertsio- eta pentsio-funtsak, balore higigarriak, bizi-aseguruak eta aldi baterako edo betiko errentak, arte-objektuak, zaharkinak eta bestelako baliozko objektuak. | - Por capital mobiliario se entiende los depósitos en cuentas corrientes y a plazo, fondos de inversión y fondos de pensiones, valores mobiliarios, seguros de vida y rentas temporales o vitalicias, objetos de arte, antigüedades y otros objetos de valor. |
| - Kapital higiezintzat hartzen dira landa eta hiri izaerako ondasunak. Ondorio horietarako ez da konputatuko ohiko etxebizitza (ezta garajea eta trastelekua ere), baldin eta ez badu aparteko baliorik, Diru-sarrerak Bermatzeko Sistema arautzen duen araubidean esaten den moduan. Halaber, ez da ondaretzat hartuko % 100eko titularitatea ez duen ondaren higiezina. | - Por capital inmobiliario se entiende los bienes de naturaleza rústica y urbana. A estos efectos no se computará la vivienda habitual (incluido garaje y trastero), salvo que sea de excepcional valor, en los términos establecidos en la normativa reguladora del Sistema de Garantía de Ingresos.<br>Así mismo, quedará exento de cómputo el patrimonio inmobiliario cuya titularidad no sea del 100%. |

3) **Bizikidetza-unitatetzat** ulertzen da ohiko etxebizitzan bizi diren pertsona guztiek osatzen dutena senidetasunaren 3. graduraino.

4) Libre erabiltzeko zenbatekoa

Dagokion indarraldiko udal araudiak zehaztuko du zein den libre erabiltzeko zenbatekoa, kontuan hartuta, kasua bada, zenbat pertsonak osatzen duten bizikidetza-unitatea.

Zerbitzu motaren arabera, onuradunaren edo onuradunen ondarea eta errenta honelaxe kontabilizatuko dira:

Etxean laguntzeko zerbitzua eta zerbitzu mistoa (etxerako laguntza+ laguntza pertsonala): kapital higiezina eta higigarria eta per capita diru-sarrera garbiak, bizikidetza-unitatea osatzen duten pertsonen arabera.

- Laguntza pertsonalerako zerbitzua: erabiltzailearen kapital higigarri eta higiezina eta diru-sarrera garbiak. Ezkontzak edo izatezko ezkontzen kasuan, bi pertsonen ondarea batu eta bi zatitan banatzen da, aldeetako bat bakarrik konputatuz.

B) Onuradunen ekarpenen kalkulua, ezarritako orduko prezioaren proportzioan.

Dagokion indarraldiko udal araudiak zehaztuko du zein den erabiltzaileak ordaindu behar duen gehieneko prezioa bere ahalmen ekonomikoaren arabera, zeina A) atalean aurreikusitakoa kontuan hartuta kalkulatu den.

3) **Por unidad convivencial**, se entiende la formada por todas aquellas personas que viven en el domicilio habitual hasta el 3º de parentesco.

4) Cuantía de libre disposición.

La normativa municipal al respecto vigente determinará el importe de la cuantía de libre disposición, atendiendo en su caso al número de personas integrantes de la unidad de convivencia

Según el tipo de servicio, el patrimonio y la renta de la persona o personas beneficiarias, se contabilizarán de la siguiente manera:

- Servicio de apoyo doméstico y servicio mixto (apoyo domestico + apoyo personal): capital inmobiliario y mobiliario e ingresos netos per cápita según las personas que integren la unidad convivencial.

- Servicio de apoyo personal: Capital mobiliario e inmobiliario e ingresos netos de la persona usuaria. En caso de matrimonio o uniones de hecho se suma el patrimonio de ambas personas y se divide entre dos, computándose sólo una de las partes.

B) Cálculo de la aportación de las personas beneficiarias al precio hora establecido:

La normativa municipal al respecto vigente en cada momento, determinará la aportación de la persona usuaria al precio máximo establecido en la misma, en función de su capacidad económica, calculada según lo previsto en el apartado A).

## ERREBALGO GELAK

| | |
|---|---|
| a) Gela baten bi orduko alokairua: | 200 € |
| b) Egun erdikoa (4 ordu): | 350 € |
| c) Egun osokoa (8 ordu): | 500 € |

1.3. Oharrak:
- Muntatzen ematen diren orduak ere zenbatu egingo dira.

- Alokairua ordaintzeak ikus-entzunezkoen sistema erabiltzeko aukera ematen du.

Ondokoak dira tasarik ordaindu behar ez dutenak:

* Gipuzkoako Foru Aldundia, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoa, Estatua, Eibarko Udala eta horien menpe dauden erakundeak.

* Diru irabazi asmorik ez duten elkarteak eta erakundeak, Udal Intereseko Elkarteen Erregistroan inskribatutakoak.

* Diru irabazi asmorik ez duten elkarteak eta erakundeak, erabilera publikotzat jotakoak.

## AULAS DE ERREBAL

| | |
|---|---|
| a) 2 Horas de alquiler de un aula: | 200 € |
| b) Media jornada (comprende 4 horas): | 350 € |
| c) Jornada entera (comprende 8 horas): | 500 € |

1.3 Notas:
- Las horas necesarias para el montaje también se computarán.

- El alquiler da derecho a la utilización del sistema audiovisual.

Están exentos del pago de la tasa:

- La Diputación Foral de Gipuzkoa, la Comunidad Autónoma del País Vasco, el Estado, el Ayuntamiento de Eibar y las entidades de ellos dependientes.
- Las Asociaciones y entidades sin ánimo de lucro inscritas en el Registro de Asociaciones de Interés Municipal.
- Las Asociaciones y entidades sin ánimo de lucro declaradas de utilidad pública.

| UDAL EUSKALTEGIA | | EUSKALTEGI MUNICIPAL | |
|---|---|---|---|
| IKASTARO MOTA | | TIPO CURSILLO | |
| HABEk onartutako moduluetan sartzen diren ikastaroak | 1,20 € | Cursos integrados en los módulos aprobados por HABE | 1,20 € |
| Materiala | 0,12 € | Material | 0,12 € |
| GUZTIRA | 1,32 € | TOTAL | 1,32 € |
| Enpresa, ikastetxe edo erakundeek antolatutako ikastaro bereziak | 43,64 € orduko / taldeko | Cursos especiales organizados por empresas, centros educativos o entidades | 43,64 € por hora y grupo |

HABEK onartutako moduluetan sartzen ez diren ikastaroen prezioa Zerbitzuak eskaini edo udal-jarduerak burutzeagatik ezarritako prezio publikoak arautzen dituen Ordenantzaren Eibarko Udalak antolatutako ikastaroak atalean jasotakoaren arabera ezarriko da.

El precio de los cursos no integrados en los módulos aprobados por HABE, se fijará según lo establecido en el apartado correspondiente a la organización de cursillos por el Ayuntamiento de Eibar, de la Ordenanza Reguladora de los Precios Públicos por la prestación de servicios o la realización de actividades municipales.

Ikastaroak Euskaltegitik kanpo ematen direnean, Euskaltegiaren eta eskolak ematen diren lekuaren artean 2 km. edo distantzia handiagoa dagoenean 0,32 €/km.ko kobratuko da.

En los cursos que se impartan fuera del propio Euskaltegi, se cobrará 0,32 €/km. cuando haya una distancia de 2 kms. o superior entre el Euskaltegi y el lugar donde se impartan las clases.

Lehenengo hiruhileko matrikulak zenbateko berdineko bi edo hiru zatitan ordainduko dira matrikula dataren arabera. Bigarren hiruhilekoan, berriz, dena batera edo zenbateko berdineko bi zatitan. Uda Ikastaroko matrikulak zati bakarrean ordainduko dira. Kasu berezietan, eta ikasleak hala eskatuz gero, matrikula osoa batera ordaintzeko aukera egongo da.

Las matrículas del primer trimestre se pagarán en dos o tres fracciones con el mismo importe, según la fecha de la matrícula. Sin embargo, en el segundo trimestre se realizará el pago una sola vez o en dos fracciones de igual importe. Las matrículas de los cursos de verano se realizarán en un único pago. En los casos especiales, y a petición del alumno, existirá la posibilidad de abonar el total de la matrícula en un solo pago.

Azarotik aurrera hasten diren ikastaroen matrikulak 3 zatitan ordaintzeko aukera egongo da.

Habrá posibilidad de pagar la matrícula en 3 fracciones en los cursos que empiezan a partir de noviembre.

Ikastaroaren 1/3 edo gehiago emanda dagoela matrikulatzen den ikasleak matrikularen 2/3 ordaindu beharko du.

El alumno que se matricule habiendo transcurrido 1/3 del curso o más deberá abonar 2/3 de la matrícula.

Matrikula eskaerak Udal Euskaltegian aurkeztu behar dira.

Las solicitudes de matriculación se presentarán en el Euskaltegi Municipal.

Matrikula egiten den une berean sortzen da urteko kuota ordaintzeko obligazioa, beraz, ikasturtean zehar egon daitezkeen bajek —ikasturtea amaitzeko gera daitezkeen hilabeteak zenbat diren kontuan hartzeke– ez dute kuota murrizteko eskubiderik sortzen.

En el momento de formalizar la matrícula se devenga la obligación de pago de la cuota anual, por lo que las bajas que puedan producirse durante el curso, con independencia de los meses que resten para su finalización, no generan derecho a la reducción de la misma.

Udal Euskaltegiarekin zerikusia duten eskabide guztiak idatziz aurkeztuko dira Udal Euskaltegiko Idazkaritzan.

Todas las solicitudes relacionadas con el Euskaltegi Municipal se presentarán en la Secretaría del Euskaltegi Municipal.

TARIFA BEREZIAK

TARIFAS ESPECIALES

Tarifa bereziak izateko, ondoko baldintza hauek bete behar dira:

Para acceder a las tarifas especiales se deben cumplir los siguientes requisitos:

1. AURREKO IKASTURTEKO ASISTENTZIAREN ARABERA. % 20ko deskontua

1. POR PORCENTAJE DE ASISTENCIA DEL CURSO ANTERIOR. Descuento del 20 %

- Eibarren erroldatuta egotea.

- Estar empadronado/a en Eibar

| | |
|---|---|
| - Aurreko ikasturtea bukatu eta gutxienez % 85eko asistentzia izatea. | - Haber finalizado el curso anterior con una asistencia mínima del 85 % |
| Tarifa berezi horren eskabidea Udal Euskaltegiko Idazkaritzan egin behar da, matrikula orrian bertan adierazita. | La solicitud de esta tarifa especial, se deberá presentar en la Secretaría del Euskaltegi Municipal, señalándola en el impreso de matriculación. |
| 2. GURASO EDO TUTORE IZATEAGATIK. % 50eko deskontua | 2. SER PADRE/MADRE O TUTOR Descuento del 50 % |
| - Eibarren erroldatuta egotea. | - Estar empadronado/a en Eibar |
| - Eibarren erroldatutako seme/alabaren bat edukitzea; matrikula egiterakoan 12 urtekoa edo hortik beherakoa. | - Tener algún hijo o hija empadronado en Eibar con una edad igual o inferior a 12 años al formalizar la matrícula. |
| - Aurreko ikasturtea bukatu eta gutxienez % 85eko asistentzia izatea, edo lehen aldiz matrikulatzea guraso edo tutore gisa. | - Asistencia mínima del 85 % el curso anterior o matricularse por primera vez como padre, madre o tutor/a. |
| Tarifa berezi horren eskabidea Udal Euskaltegiko idazkaritzan egin behar da, matrikulazio orrian bertan adierazita ondoko dokumentazio honekin batera: | La solicitud de esta tarifa especial, se deberá presentar en la secretaría del Euskaltegi Municipal, señalándola en el impreso de matriculación junto con la siguiente documentación: |
| - Familia-liburuaren fotokopia (gurasoak eta seme-alabak elkarrekin bizi ez badira) | - Fotocopia del Libro de Familia (Si padres/madres e hijos/as no viven en el mismo domicilio) |
| 3. MERKATARI/OSTALARI EDO ZERBITZUEN SEKTOREAN ENPLEGATUTAKO PERTSONA. % 50eko deskontua. | 3. SER COMERCIANTE/HOSTELERO O PERSONA EMPLEADA EN EL SECTOR SERVICIOS. Descuento del 50 % |
| - Eibarren erroldatuta egotea. | - Estar empadronado/a en Eibar |
| - Establezimenduak egoitza Eibarren edukitzea. | - El establecimiento debe tener sede en Eibar |
| - Aurreko ikasturtea bukatu eta gutxienez % 85eko asistentzia izatea, edo lehen aldiz matrikulatzea merkatari, ostalari edo zerbitzuen sektoreko enplegatu gisa. | - Haber finalizado el curso anterior con una asistencia mínima del 85 % o matricularse por primera vez como comerciante/hostelero o persona empleada en el sector servicios. |
| Tarifa berezi horren eskabidea Udal Euskaltegiko idazkaritzan egin behar da, matrikulazio orrian bertan adierazita eta ondoko dokumentazio honekin batera: | La solicitud de esta tarifa especial, se deberá presentar en la secretaría del Euskaltegi Municipal, señalándola en el impreso de matriculación junto con la siguiente documentación: |
| - “Merkatari, ostalari edo zerbitzuen sektoreko enplegatua dela egiaztatzen duen dokumentua” izeneko inprimakia, behar bezala beteta, edo, beste edozein dokumentu, merkatari, ostalari edo zerbitzuen sektoreko enplegatu izate hori egiaztatzekoa. | - Impreso “Acreditación de ser comerciante, hostelero/a o empleado/a del sector servicios” debidamente cumplimentado o cualquier documento acreditativo de ser comerciante, hostelero/a o empleado/a del sector servicios. |
| 4. ENPRESA BATEKO LANGILEA. % 50eko deskontua | 4. SER EMPLEADO/A DE EMPRESA. Descuento del 50 % |
| - Eibarren erroldatutakoa izatea | - Estar empadronado/a en Eibar |
| - Enpresaren egoitza Eibarren izatea | - La empresa debe tener su sede en Eibar |
| - Enpresak euskara plana eduki behar du indarrean. | - La empresa debe tener vigente un plan de euskera |
| - Aurreko ikasturtea bukatu eta gutxienez % 85eko asistentzia izatea, edo lehen aldiz matrikulatzea enpresako enplegatu gisa. | - Haber finalizado el curso anterior con una asistencia mínima de 85 %, o matricularse por primera vez como persona empleada de empresa. |
| Tarifa berezi horren eskabidea Udal Euskaltegiko idazkaritzan egin behar da, matrikulazio orrian bertan adierazita eta ondoko dokumentazio honekin batera: | La solicitud de esta tarifa especial, se deberá presentar en la secretaría del Euskaltegi Municipal, señalándola en el impreso de matriculación junto con la siguiente documentación: |

- “Enpresak Euskara Plana duela egiaztatzen duen dokumentua” inprimakia behar bezala beteta edo enpresak Euskara Plan bat duela egiaztatzeko beste edozein dokumentu.

- El impreso “Acreditación de que la empresa dispone de un Plan de Euskera” debidamente cumplimentado o cualquier documento que acredite que la empresa dispone de un Plan de Euskera.

5. 65 URTE EDO GEHIAGO IZATEA. % 50eko deskontua

- Eibarren erroldatutakoa.

- 65 urte edo gehiago izatea matrikula egiterakoan.

- Aurreko ikasturtea bukatu eta gutxienez % 85eko asistentzia izatea aurreko ikasturtean, edo lehen aldiz matrikulatzea 65 urte edo hortik gorako ikasle gisa.

Tarifa berezi horren eskabidea Udal Euskaltegiko idazkaritzan egin behar da, matrikulazio orrian bertan adierazita.

5. TENER 65 o MÁS AÑOS. Descuento del 50 %

- Estar empadronado en Eibar

- Tener 65 años o más a la hora de matricularse.

- Haber finalizado el curso anterior con una asistencia mínima del 85 %, o matricularse por primera vez como alumno o alumna de 65 años o más.

La solicitud de esta tarifa especial, se deberá presentar en la Secretaría del Euskaltegi Municipal, señalándola en el impreso de matriculación.

6. LANGABEA IZATEA. % 50eko deskontua

- Eibarren erroldatuta egotea.

- Aurreko ikasturtea bukatu eta gutxienez % 85eko asistentzia izatea, edo lehen aldiz matrikulatzea langabetu gisa.

Tarifa berezi horren eskabidea Udal Euskaltegiko idazkaritzan egin behar da, matrikulazio orrian bertan adierazita eta ondoko dokumentazio honekin batera:

- Enplegurik ez duela egiaztatzen duen dokumentua.

6. ESTAR DESEMPLEADO/A. Descuento del 50 %.

- Estar empadronado/a en Eibar

- Haber finalizado el curso anterior con una asistencia mínima del 85 % o matricularse por primera vez como desempleado/a.

La solicitud de esta tarifa especial, se deberá presentar en la secretaría del Euskaltegi Municipal, señalándola en el impreso de matriculación junto con la siguiente documentación:

- Documento acreditativo de estar desempleado.

7. IKASLEA IZATEA. % 50eko deskontua

- Eibarren erroldatuta egotea

- Irakaskuntza Arautuko (Batxilergoan, Unibertsitatean, Lanbide Heziketan —Erdi Mailakoetan zein Goi mailakoetan—) eta Master batzuetako ikasle izatea (karrera batekin lotuta daudenak).

- Aurreko ikasturtea bukatu eta gutxienez % 85eko asistentzia izatea edo lehen aldiz matrikulatzea ikasle gisa.

Tarifa berezi horren eskabidea Udal Euskaltegiko idazkaritzan egin behar da, matrikulazio orrian bertan adierazita eta ondoko dokumentazio honekin batera:

- “Ikasle dela egiaztatzen duen dokumentua” inprimakia behar bezala beteta edo ikasle dela egiaztatzeko beste edozein dokumentu.

7. SER ESTUDIANTE. Descuento del 50 %

- Estar empadronado en Eibar

- Ser estudiante en Enseñanza Reglada (Bachiller, Universidad, Formación Profesional (Grado medio o superior, y algunos Masters (los relacionados con alguna carrera)

- Haber finalizado el curso anterior con una asistencia mínima del 85 % o matricularse por primera vez como alumno/a.

La solicitud de esta tarifa especial, se deberá presentar en la Secretaría del Euskaltegi Municipal, señalándola en el impreso de matriculación junto con la siguiente documentación:

- El impreso “Acreditación de ser alumno/a” debidamente cumplimentado o cualquier documento acreditativo de ser estudiante.

8. DSBE edo DBL JASOTZEN DUTENAK IZATEA. % 75eko deskontua.

- Eibarren erroldatuta egotea.

- Matrikulatutako pertsona edo matrikulatutako adingabearen tutorea Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren titularra edo Diru-sarrerak Bermatzeko Laguntzaren titularra izatea matrikulazio-urtearen aurreko urteko abenduaren 31n

8. SER PERCEPTOR DE RGI O AGI. Descuento del 75 %.

-Estar empadronado en Eibar.

-Que la persona matriculada o el tutor del menor matriculado sea titular de la Renta de Garantía de Ingresos o de la Ayuda de Garantía de Ingresos a 31 de diciembre del año inmediatamente anterior a la formalización de la matrícula.

Tarifa berezi hori Udal Euskaltegiko Idazkaritzan eskatu behar da, matrikulazio-orrian bertan markatuta eta ondoko agiri honekin lagunduta:

- DSBE edo DBL laguntzen jasotzaile dela egiaztatzeko agiria

9. FAMILIA UGARIAREN TARIFA / FAMILIA-UNITATE BEREKO FAMILIAKO HAINBAT KIDEREN MATRIKULAK. %25eko deskontua

- Eibarren erroldatuta egotea.
- Familia ugari bateko kidea izatea edota familiako hainbat kide matrikulatzea.
- Aurreko ikasturtea bukatu eta gutxienez % 85eko asistentzia izatea edo lehen aldiz matrikulatzea familia ugariaren kide bezala edo familia-unitateko beste kide bat edo gehiagorekin batera.
- Tarifa berezi hori Udal Euskaltegiko Idazkaritzan eskatu behar da, matrikulazio-orrian bertan markatuta eta ondoko agiri honekin lagunduta:
- Familia ugarien kasuan: familia ugariaren tituluaren fotokopia.

Tarifa berezi hauek ez dira bateragarriak euren artean.

Tarifa berezia izateko eskatzen diren baldintzak, ikasleak betetzen dituen edo ez aztertzeko orduan, alde batetik, Neguko Ikastaroa hartuko da kontuan, eta bestetik, Udakoa.

La solicitud de esta tarifa especial, se deberá presentar en la Secretaría del Euskaltegi Municipal, señalándola en el impreso de matriculación junto con la siguiente documentación:

- Documento acreditativo de ser perceptora de RGI o AGI.

9. TARIFA DE FAMILIA NUMEROSA / MATRÍCULAS DE MIEMBROS DE UNA MISMA UNIDAD FAMILIAR. Descuento del 25 %

- Estar empadronado en Eibar
- Ser miembro de una familia numerosa y/o matriculación de varios miembros de una misma familia
- Haber finalizado el curso anterior o haber tenido una asistencia de 85 % como mínimo o matricularse por primera vez como miembro de una familia numerosa o matricularse con algún otro u otros miembros de la misma unidad familiar.
- La tarifa especial se debe solicitar en la Secretaría del Euskaltegi Municipal, marcando en el impreso de la matrícula y acompañado de los siguientes documentos
- En el caso de familia numerosa: Fotocopia del título de familia numerosa

Estas tarifas especiales no son acumulables.

A la hora de examinar si el alumno cumple las condiciones para optar a las tarifas especiales, se considerarán independientemente los cursos de verano e invierno.